

Euskara 'praktikoa' ikasteko garaia



AEK

Euskaltegietan izena emateko garaia dela, alegia. Besteren artean, AEK-k ere kanpaina abiatu du *Euskara praktikoa* lelopean. AEK-k ikasleari adierazi nahi dio egunerokoan eta lanean erabili ahal izateko euskara ikasteko metodo eraginkorra aurkituko duela bere euskaltegietan, "nahi duzuen guztia ulertzea, nahi duzuen guztia esatea" lortu ahal izango dutela.

Sakanako Mankomunitateak, bestalde, nafar guztiak gonbidatu ditu euskara ikastera eta kanpainarako ondoko leloa aukeratu du: *No me dejes a medias / Ez utzi erdizka*. Euskaltegian, etxean, ikastetxean euskalduntzen hasi eta erdizka geratu direnei edo ikasi arren erabiltzen ez dutenei zuzendu diete kanpaina.

Bahea

Goiena.eus-en Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariari egindako elkarrizketatik:

"Zigor Etxeburuak utzitako lekuan diharduzu lanean. Baduzu haren politikak jarraitzeko asmorik?"

Etxe honetan badago ardatz bat hizkuntzaren gaian oso atzetik datorrena eta eten handirik izan ez duena. Lehenago egon diren euskara zuzendariak ere metatu dute aurrekoak egindakoa. Nabardurekin, erritmo ezberdinekin, hobekuntzekin... baina koherentzia batekin. Duela urte asko erabat eralduna zen etxea gaur egun elebiduna da. Eta ez nator lehendik ondo egindako ezer apurtzera. Egongo dira egokitzapen batzuk, edo nabardura batzuk, baina jarraituko dugu lehengo ildotik.

Ze berritasun dakarzu?

Berritasun nagusia begirada luzatzea litzateke. Estilo kontua izan daiteke. Ormaiztegin jaio garenok badakigu zubiak zenbateraino diren garrantzitsuak eta sozialki Debagoienean hazi garenok lankidetzaren zein garrantzitsua den badakigu. Estilo aldetik, zubiak eta lankidetzaren oinarri hartuko dituen, eta, bestetik, begirada luzea izango duena. Euskararen biziberritze prozesua geldidune edo bidegurutzaren baten dago. Ziklo luze batetik gatoz. Emaitzak hor daude. Asko aurreratu da. Baina, aldi berean, jomuga batzuk erdietsi baditugu ere, gauza berdinak eginez lorpenak berdinak ez dira izango. Beharrezkoa da begirada luze bat. 25 urtekoa-edo".

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Pentsio miserableak

ESPAINIAKO GIZARTE SEGURANTZAKO Institutu Nazionalak abuztu arteko pentsioen inguruko datuak publikatu ditu. Iturri ofizial horren arabera, Hego Euskal Herriko pentsionistak dira Espainiako Estatuan ordainsari handiena jasotzen dutenak –hilean 1.080 euro, Estatuko batez besteko 888 euroren aldean–, eurak baitira nominatik gehien kotizatzen dutenak. Hemen sartuko lirateke erretiroan daudenei, ezintasun iraunkorra dutenei eta alargun eta umezurtz direnei emandako laguntzak. Erretiroagatik ematen diren laguntzak dira poltsa horretako zati handiena, zehazki %63,5 eta batez beste 1.236 euro hilean.

Estatistika horiek, ordea, beste errealitate bat ezkutatu dute, hala nola mila eurora iristen ez diren pentsionisten portzentaje altua –kopuru hori hartu ohi da oinarritzko beharrak asetzeko gutxieneko gisa–. Hego Euskal Herrian pentsioa jasotzen duten 660.000 lagunetik 454.064 dira mila euro horietara iristen ez direnak, %68,8 alegia. Hau da, hamar pentsionistatik zazpi mila euro baino gutxiago jasotzen du. Gainera, horietatik 312.163 lagunek (%47,2) 648,6 eurotik

behera jasotzen dute; 2015eko lanbide arteko gutxieneko soldatara ez dira iristen beraz. Pentsiodun gehien biltzen dituen diru-sarreraren tartera 350 eurotik 600 euro artekoa da, 253.443 pertsonak jasotzen dute tarte horretan dagoen diru kopurua hileroko.

Horri gehitu behar diogu urtero handitzen den balioa ez dela %0,25era ere iristen –hilean euro bat edo bi– eta pentsioen etorkizuna ezezaguna zaigula –pentsioen kutxa xahutzen ari dira eta Gizarte Segurantzak defizita bikoiztu du aurten, 4.400 milioi eurora iristeraino–. Gure pentsionistentzako errealitatea odoltsua da. Pobrezia dakarten pentsio miserableak dira. Beharrezkoa da berezko gizarte segurantzaren alde borrokan jarraitzea, aditu askoren ustez halako tresna bat jasangarria bailitzateke Euskal Herrian. Bitartean, euskal erakundeek konpromisoa hartu beharko lukete 1.000 eurora iristen ez diren pentsio baxuenak osatzeko.

Juan Mari Arregi